

ETXARRIKO UDALAREN ADIERAZPENA

Martxoak 8, emakumeen nazioarteko greba

Emakumeek kalera!

Iaz, 70 herrialde baino gehiagotan, emakumeek nazioarteko emakumeen grebarako delaldia zabaldu zuten, emakumeen kontra indarkeria eta desberdintasun molde ugari eragiten dituen munduaren aurrean.

Aurtengo martxoaren 8an, Emakume Langileen Nazioarteko Egunean, Euskal Herriko mugimendu feministak, sindikatuek eta hainbat eragile politikok bat egin dugu EMAKUMEOK PLANTO aldarriarekin, emakumeak mende hartzen eta zapaltzen gaituen sistema kapitalista, arrazista eta heteropatriarkala salatzeke.

Sistema honek sexuaren araberako lan-banaketa bultzatzen du, eta ezkutatu eta gutxietsi egiten ditu bai feminizatutako ogibideak, bai bizitzaren iraunkortasunarekin eta zaintzarekin lotutakotako lanak. Jada “ez gaudela krisian” esaten digute, baina erreproduzio sozialaren krisia erroturik dugu gurean. Bizitzaren prekarizazioa orokortzen eta larritzen ari da. Egoera honetan, bizitzen sostengua eta zaintza berriz ere etheen esku gelditu da, zehazki, emakumeek egiten dugun lan ikusezinaren esku.

Testuinguru honetan, hainbat indarkeria moldeak (sexista, arrazista eta klasista) zeharkatzen dituzte gure gorputzak; eta, gainera, hedabideek emakumezkoen irudiak sexu-objektu gisa erabiltzen dituzte, eta estereotipo sexistak sistematikoki zabaltzen dituzte.

Bazterketa prozesuen areagotzea bizi dugu. Jada gatazka ez da “dutenen” eta “ez dutenen” artean ematen. Egungo bazterketa prozesuak jatorria, sexua, arraza eta beste hainbat ezaugarrietan oinarritzen dira.

Horregatik guztiagatik, Etxarriko Udalak bat egiten du martxoaren 8ko greba feministarekin, eta mugimendu feministak herrian antolatutako ekimenetan aktiboki parte hartzeko deia luzatzen dugu.